# LAZKAO

| # 02 | 2015 AZAROA |

LAZKAOKO UDALA



# Jarduera ekonomikoa sustatzeko lanean

## "Merkatariok indarrak batu beharko genituzke"

**NAGORE COLORADO**

*Lazka On Merkatarien Elkarteko lehendakaria*
*Presidenta de la Asociación de Comerciantes Lazka On*



02 **ONGIZATEA:** Garapen bidean dauden herrialdeekin elkartasuna.

04 **TASAK:** Tasak eta zergak bere horretan mantenduko dira, zaborrena salbu.

05 **LABURRAK:** Kale eta eraikin publikoen garbiketa zerbitzuen esleipen prozesuak, martxan.

*Ongizatea*

# Lazkaotik arnasa mundura

# Un respiro al mundo desde Lazkao

Elkartasunari zifrak jarri behar zaizkio bidegabekeria salatzetik ekintzara pasa ahal izateko hainbeste premiaren aurrean. Lazkaok, Iparra hegoa ekimenaren bitartez, 52.000 euro bideratuko ditu garapen bidean dauden herrialdeetan proiektu ezberdinak finantzatzeko. Nikaraguara, Beninera, Ekuatore Gineara, Perura, Mexikora, Pakistanera edota Haitira iritsiko da laguntza.

La solidaridad se ha de traducir en cifras para pasar de la indignación a la acción ante tantas necesidades apremiantes. Lazkao, por medio del programa Iparra Hegoa, destinará 52.000 euros que irán a parar a Nicaragua, Benin, Guinea Ecuatorial, Perú, México, Pakistan o Haití gracias al trabajo voluntario de muchísimas personas.

## Proiektuak eta laguntzak / Proyectos y ayudas

### Ilargi Beltza elkartea

Nikaraguan Nagarote herrian desnutrizio kronikoa desagertarazteko proiektua.
Proyecto para erradicar la desnutrición crónica en Nagarote, en Nicaragua.

**» 5.000 €**

### Rokpa Euskadi

Nepalerako laguntza proiektua, apirilean izandako lurrikarak eragindako kalteak arindu ahal izateko.
Proyecto de ayuda de emergencia a Nepal para paliar los daños generados por el devastador terremoto que asoló el país el pasado mes de abril.

**» 2.500 €**

### Herriak elkarlanean

Beningo Manta herriko barnetegia osatzeko proiektua.
Proyecto para mejorar el internado de Manta, Benin.

**» 5.000 €**

### Asociación Manos Acción Solidaria

Ekuatore Gineako Nkomidjinen eskola bat eraikitzeko proiektua.
Proyecto para la construcción de una escuela en Nkomidjin, Guinea Ecuatorial.

**» 4.062 €**

### Doa denok osasunaren alde

Boliviako Beni departamenduko osasun sistema hobetzeko proiektua.
Proyecto de mejora del sistema de salud para el departamento de Beni Bolivia.

**7.000 €**

### Mundu solidarioa helburu

Nikaraguako Diriamba herrian gaitasun urriak dituzten gazteen integrazioa sustatzeko proiektua.
Proyecto para la integración de jóvenes con discapacidad en Diriamba, Nicaragua.

**7.500 €**

### Derandein

Kenian, Turkanako gazteen ahaltasuna eta formakuntza bultzatzeko proiektua.
Proyecto de empoderamiento y formación para los jóvenes de Turkana, en Kenia.

**2.751,99 €**

### Asociación de Cooperación al Desarrollo, Bilbotik Perura

Peruko Alto Trujillon tratu txarrak jasan dituzten emakumeen ahaltasuna indartu eta gizarteratzeko proiektua.
Proyecto de empoderamiento e integración social para mujeres que sufren maltrato en Alto Trujillo, Perú.

**1.697,95 €**

### Lazkaoko Ruanda Taldea

Ruandako Ghiara herriko Batwa familia behartsuenentzat etxebizitza duina errazteko proiektua.
Proyecto para facilitar el acceso a una vivienda digna para las familias Batwas de Ghiara, en Ruanda, África.

**7.193,68 €**

### Lumaltik herriak

Mexikon, Chiapaseko indigenen heziketa baldintzen hobetze proiektua.
Proyecto de mejora para la educación de los indígenas de Chiapas, en México.

**4.180, 71 €**

### Baltistan fundazioa

Pakistango Hushe herriko emakume eta jaioberrien osasun baldintzak hobetzeko proiektua.
Proyecto de mejora de la salud de las mujeres y recién nacidos de Hushe, en Pakistán.

**2.140,38 €**

### Bakerako lankidetza batzarra

Haitin, Jacmeleko 16 familiren elikadura eta bizi baliabideak hobetzeko proiektua.
Proyecto para mejorar los recursos de 16 familias de Jacmel, en Haití.

**2.972,79 €**

## ANDONI ARISTEGUI

*Ilargi Beltza elkarteko kidea / Miembro de Ilargi Beltza*

### “Elikagaiak daramatzagu oso ahul, gaixo edo tratamenduan dauden pertsonentzat”



Hil honen 4an, Andoni Aristeguik eta Ilargi Beltza elkarteko beste hiru lagunek hegaldia hartu zuten Nikaraguako lurretan lur hartzeko. Hango desnutrizio kronikoa errotik kendu nahian joan dira. “Elikagaiak daramatzagu, 500 edo 600 unitate. Zumarragako Ospitalean eman dizkigute batzuk eta besteak erosi egin ditugu. Urarekin edo esnearekin nahastuta, oso ahul, gaixo edo tratamendu onkologikoan daudenei ematen zaizkie dieta modura”. Janaria, edateko ur bihurtzeko pilulak, bitaminak, e.a ere eraman dituzte. “Aurten, “El Niño” fenomenoaren eragina jasaten ari dira eta lehortearekin produkzioa jaitsi egin zaie”, dio Aristeguik.

El día 4 de este mes Andoni Aristegui y tres amigos de Ilargi Beltza cogieron un vuelo para aterrizar en tierras nicaragüenses con el fin de poner su grano de arena para erradicar la desnutrición crónica. “Llevamos nutrientes, 500 o 600 sobres. El Hospital de Zumárraga nos ha donado una parte y otra parte la hemos comprado nosotros. Mezclados con agua o leche, sirven como dieta para personas muy debilitadas, enfermas o en tratamiento oncológico”. También llevan comida, pastillas potabilizadoras de agua, vitaminas... “Les está afectando el fenómeno de El Niño y al haber sequía, la producción se reduce”, cuenta.

## LEIRE ETXEBERRIA

*Mundu Solidarioa Helburu*

### “Urritasunak dituztenentzat zerbitzu baten beharra ikusi genuen”



2000tik Nikaraguako Diriamba herrian lanean ari da Mundu Solidarioa Helburu elkartea. “Urritasunak dituzten pertsonek eskola dute baina 18 urtetik gora ez dute zerbitzurik eta zentro bat irekitzearen beharra ikusi genuen”, dio Leire Etxeberriak. Japoniako enbaxadaren laguntzari esker iaz zabaldu zen zentroa, baina eusteko ere laguntza beharrezkoa zaie. “35 gazte daude bertan. Hasieran zaintza eskaintzeko sortu zen baina sentsibilizazioa eta integrazioa gero eta gehiago lantzen dira. Aukeren arabera, gazte horiei lan merkatuko ateak zabaltzea da erronka”. Pertsonalki boluntario lana nola ikusten duen galdetuta, ez du dudarik. “Niri izugarri eman dit boluntariotzak”.

La ONG Mundu Solidarioa Helburu lleva trabajando en el municipio Diriamba de Nicaragua desde el 2000. “Las personas con discapacidad tienen la escuela pero a partir de los 18 años se quedan sin servicio. Vimos la necesidad de abrir un centro”, explica Leire Etxeberria. El año pasado se construyó el centro con la aportación de la embajada de Japón, pero necesitan más ayudas para su mantenimiento. “Hay 35 jóvenes. Al principio, era una tarea asistencial pero cada vez más están realizando labores de sensibilización e integración para abrirles las puertas del mercado laboral, ese es el reto”. Al preguntarle qué supone el voluntariado para ella, no duda. “ A mí me ha aportado muchísimo”.

## Pertsona nagusien zaintzaileentzat formakuntza ikastaroak

Udaleko Ongizate sailak antolatuta, formakuntza ikastaroak eskainiko dira pertsona nagusien zaintzaileentzat. Oraingoz datak itxi gabe daude baina interesa dutenek Udaletxean dute izena emateko aukera. Bi ikastaro daude hautagai: “Autocuidado: cuidarse para cuidar” edo “Técnicas de relajación”. Bietatik interes handiena sortzen duena emango da.

## Cursos de formación para cuidadores de personas mayores

El departamento de Bienestar Social ofrecerá cursos de formación para cuidadores de personas mayores. De momento, no se han cerrado las fechas pero las personas interesadas pueden inscribirse en el Ayuntamiento. Se plantean dos opciones de cursos: “Autocuidado: cuidarse para cuidar” o “Técnicas de relajación”. Se impartirá el que mayor interés genere entre los participantes.

## Lazkaoko gazte kooperanteentzat laguntzak

Lazkaoko gazte kooperanteei zuzenduriko laguntzak arautzeko irizpideak jasoko dituen txostena lantzen ari da Udala. Helburua da gazteak beharrik handiena duten herrialdeetan garapen lankidetza ekintzetarako sentiberatzea eta gazteen artean herrialdeen eta kulturen elkartasun baloreak sustatzea.

## Ayudas para jóvenes cooperantes de Lazkao

El Ayuntamiento está elaborando un documento en el que se recogen los criterios que regularán la concesión de ayudas para jóvenes cooperantes. Los objetivos son sensibilizar a los jóvenes sobre la necesidad de colaboración en los países más necesitados y fomentar, entre nuestros jóvenes, valores solidarios entre pueblos y culturas.

# Tasak

## Tasa eta zerga guztiak bere horretan geldituko dira zaborren tasa ezik eta etxe hutsei Ondasun Higiezinen gaineko Zerga kenduko zaie

Urriaren 27ko udalbatzan ordenantza fiskalei hasierako onespena eman zitzaien, ondorioz aurrera doa tasa eta zerga guztiak bere horretan uzteko proposamena, zaborrena ezik. Zaborren kasuan igoera %8koa izango da, dagoen defizitari aurre egin ahal izateko, kostuaren eta sarreren arteko aldea 2015ean 120.597 eurokoa baita. Igoerarik ez balitz aplikatuko datorren urtean, defizita 150.000 eurora igoko litzateke. Beharrezkoa da gastuen eta sarreren arteko oreka bilatzea eta horixe da igoera ezartzerakoan erabilitako irizpidea. Izan ere, igoera eta guzti, zerbitzuaren estaldura %69koa izango da herritarren aldetik, azken hamar urteetan izan den baxuena.Uraren tarifaren kasuan ez da halakorik gertatzen. Ez dago desorekarik eta beraz, tasak ez dira igoko.
Udalaren proposamenak jasotzen du etxe hutsei OHZ-ren %100 errekargua kentzea.

## Se congelarán todas las tasas e impuestos excepto la de basuras y se suprimirá el recargo del IBI a las viviendas vacías

El pleno del pasado 27 de octubre acordó la aprobación inicial de las ordenanzas fiscales dando luz verde a la propuesta inicial de congelar todas las tasas e impuestos salvo la de basuras. El incremento en la tasa de basuras será del 8% para hacer frente al déficit existente que asciende a 120.597 euros en 2015. Si no se aplicara ningún incremento, el año que viene el déficit sería de 150.000 euros. Es necesario un equilibrio entre gastos e ingresos y es justamente el criterio utilizado a la hora de fijar la tasa. Y es que, aún con la subida, la cobertura del servicio por parte de la ciudadanía será del 69%, la más bajas de los últimos diez años.
En el caso de la tarifa del agua, no existe tal desequilibrio entre el coste del servicio y los ingresos de modo que se congelarán los tipos.
La propuesta del Ayuntamiento contempla la supresión del recargo del 100% del IBI a las viviendas vacías.

**Ondorengo tauletan ikus daitezke zaborraren eta uraren zerbitzuei dagozkien gastuak eta diru-sarrerak.**

**En las siguientes tablas se pueden observar los datos referentes a gastos e ingresos en los servicios de basuras y agua.**

### Zaborrak / Basuras

| URTEA | ZABOR TASA SARRERAK | | SASIETARI APORTAZIOA | ALDEA | ZERBITZUAREN AUTO-FINANTZIAZIOA % | IPC % (4) | TASA IGOERA % | SASIETAKO IGOERA % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2005 | 151.229,73 | | 155.650,00 | -4.420,27 | 97 | 3,2 | 5,0 | |
| 2006 | 159.851,54 | | 165.033,84 | -5.182,30 | 97 | 3,2 | 5,0 | 6,0 |
| 2007 | 168.274,79 | | 174.107,04 | -5.832,25 | 97 | 3,6 | 5,0 | 5,5 |
| 2008 | 186.530,62 | | 189.602,52 | -3.071,90 | 98 | 2,3 | 8,5 | 9,0 |
| 2009 | 205.694,09 | | 208.562,76 | -2.868,67 | 99 | 4,9 | 8,0 | 9,9 |
| 2010 | 223.506,97 | | 225.247,79 | -1.740,82 | 99 | -0,1 | 8,0 | 8,0 |
| 2011 | 244.719,22 | | 243.267,60 | 1.451,62 | 101 | 1,7 | 8,0 | 8,0 |
| 2012 | 241.000,00 | | 262.729,08 | -21.729,08 | 92 | 2,8 | 0,0 | 8,0 |
| 2013 | 249.737,07 | | 275.865,47 | -26.128,40 | 91 | 2,4 | 5,0 | 5,0 |
| 2014 | 256.133,46 | | 297.934,71 | -41.801,25 | 86 | 1,9 | 1,9 | 8,0 |
| 2015 | 252.979,55 | 1 | 321.768,70 | -68.789,15 | 79 | -0,3 | 0,0 | 8,0 |
| | | | | | | | | |
| 2015 | 252.979,55 | 2 | 373.577,68 | -120.598,13 | 68 | -0,3 | 0,0 | 25,4 |
| | | | | | | | | |
| 2016 | 273.217,91 | 3 | 423.257,12 | -150.039,21 | 65 | | 8,0 | 13,3 |

Koadro honetan Sasietari eginiko aportazioa soilik jasotzen da. Ez dira sartzen udaleko teknikarien dedikazioak suposatzen duen kostua eta udaletik zabor bilketa gaiari lotuta egindako beste gastuak.

1 Orain arte izandako diru sarrerak. Errolda guztiz ixteko.

2 2015 urtean egin beharko den aparteko aportazioa gehituta 51.809€.

3 Aurreikuspenak.

4 KPI - IPC Abuztutik - Abuztura, gainontzeko tasei aplikatutakoa.

### Urak / Aguas

| URTEA | UR TASA SARRERAK | KOSTUA | ALDEA | ZERBITZUAREN AUTOFINANTZIAZIOA % | IPC % (2) | TASA IGOERA % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2005 | 377.962,57 | 430.925,10 | -52.962,53 | 88 | 3,2 | (1) |
| 2006 | 423.165,24 | 438.230,00 | -15.064,76 | 97 | 3,2 | (1) |
| 2007 | 496.958,96 | 436.918,52 | 60.040,44 | 114 | 3,6 | (1) |
| 2008 | 513.451,12 | 507.440,80 | 6.010,32 | 101 | 2,3 | 8,80 |
| 2009 | 515.471,85 | 512.146,59 | 3.325,26 | 101 | 4,9 | 0,00 |
| 2010 | 555.224,47 | 631.269,98 | -76.045,51 | 88 | -0,1 | 0,00 |
| 2011 | 489.887,23 | 509.771,89 | -19.884,66 | 96 | 1,7 | 3,00 |
| 2012 | 505.341,79 | 506.256,15 | -914,36 | 100 | 2,8 | 0,00 |
| 2013 | 486.636,38 | 472.964,34 | 13.672,04 | 103 | 2,4 | 2,40 |
| 2014 | 560.000,65 | 480.994,01 | 79.006,64 | 116 | 1,9 | 1,50 |

2015eko urtea nola itxiko den jakitea oraindik posible ez den arren, 2016rako kontsortziotik aplikatuko den igoera parekatu ahal izatea espero da. Horretan oinarrituta ez da igoerarik aplikatuko.

1 Aldakorra %15 etxebizitzetan eta %20 etxeb. Ez denean; Finkoa %10 kasu guztietan.

2 KPI - IPC Abuztutik - Abuztura, gainontzeko tasei aplikatutakoa.

# Laburrak



### 9.237 EURO BIDERATU DITU UDALAK LAGUNTZETAN EUSKARA IKASTEAGATIK

Udalak 9.237 euro banatu ditu diru-laguntzetan euskarako klaseetara joateagatik. 12 lagun dira onuradunak. Laguntza eskatzeko bete beharreko baldintzen artean daude langabezian egotea, klaseen %80ra joatea, euskaltegi edo zentro homologatu batean ikastea edota klaseak hasi baino gutxienez urtebete lehenagotik Lazkaon erroldatuta egotea.

### DESTINADOS 9.237 EUROS EN AYUDAS POR APRENDER EUSKERA

El Ayuntamiento ha destinado 9.237 euros en subvenciones por asistir a clases de euskera. Han sido 12 las personas beneficiarias de estas ayudas. Entre los requisitos para solicitar esta ayuda se contemplan estar en paro, la obligación de asistir al 80% de las clases, ir a un centro o euskaltegi homologado y el estar empadronado en Lazkao como mínimo un año antes de comenzar las clases.




### NOLA APAINDU GABONETAKO ZUHAITZA BIRZIKLATUTAKO APAINGARRIEKIN?

Azaroaren 20an eta 27an eta abenduaren 4an, Eguberritako Haur Tailerra egingo da birziklatutako materialekin egindako eskulanekin Gabonetako zuhaitza nola apaindu ikasteko. Tailerra 6 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzentzen zaie eta saioak arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara izango dira. Izen-ematea zabalik dago Udaletxean. 10 euroko prezioa du.

### CÓMO DECORAR EL ÁRBOL DE NAVIDAD CON ADORNOS RECICLADOS

Los días 20 y 27 de noviembre y el 4 de diciembre tendrá lugar el Taller de Navidad para aprender a decorar el árbol de Navidad con manualidades hechas con materiales reciclados. El taller está dirigido a niñas y niños de entre 6 y 8 años y las sesiones serán entre las 17.00 y las 19.00h. Se puede realizar la inscripción en el Ayuntamiento. El precio es de 10 euros.

### KIROL ELKARTEEI BABESA

Behin kirol taldeek aurkeztutako jarduera memoriak aztertuta, Udalak 19.200 euro banatuko ditu zortzi elkarteren artean diru-laguntza modura. Futbol taldeak jasoko du laguntzarik handiena 14.202 eurorekin. Bigarren lekuan pilota taldea aurkitzen da, 1.285 euro jasoko baititu. Gainontzekoak mendi taldeak jasoko dituen 841 euroren eta softbol taldeari emango zaizkion 169 euroren artean daude.

### APOYO A ENTIDADES DEPORTIVAS

Tras analizar las memorias de actividades presentadas por las entidades deportivas, el Ayuntamiento ha resuelto destinar 19.200 euros a ocho asociaciones. El equipo de fútbol recibirá 14.202 euros, la mayor partida. En segundo lugar está el equipo de pelota al que se destinarán 1.285 euros. El resto de asociaciones andan entre los 841 euros del club de montaña y los 169 euros del equipo de sóftbol.

### GAZTE LOKALA BERRIRO MARTXAN

Ohiko geldialdia eta gero, berriro martxan da Gazte Lokala. Larunbatero eta igandero zerbitzuaz gozatzeko aukera dute 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoek. Bi hezitzaile arduratuko dira 16:00etatik 20:00etara, hau baita gunearen erabilera ordutegia.

### EL GAZTE LOKALA DE NUEVO EN MARCHA

Tras el parón habitual, el Gazte Lokala está de nuevo en marcha. Todos los sábados y domingos podrán disfrutar de este servicio los chavales de entre 12 y 17 años. Dos educadores atenderán a los jóvenes entre las 16.00 y las 20.00h. horario en el que estará abierto el espacio.



### LUDOTEKA ZERBITZUA GABONETAKO OPORRALDIAN

2004 eta 2012 urte bitartean jaiotakoek, biak barne, Ludoteka zerbitzua erabili ahalko dute Gabonetako oporraldian. Zabalik egongo da abenduaren 23, 28, 29 eta 30ean, eta urtarrilaren 4an, goizeko 10:30etik 13:00era. Parte hartu nahi dutenek kiroldegian eman dezakete izena azaroaren 27a baino lehen.

### SERVICIO DE LUDOTECA DURANTE LAS VACACIONES DE NAVIDAD

Los nacidos entre 2004 y 2012, ambos inclusive, podrán utilizar el servicio de Ludoteca durante las vacaciones de Navidad. Estará abierto los días 23, 28, 29 y 30 de diciembre y el 4 de enero, entre las 10.30 y las 13.00h. Los interesados pueden inscribirse en el Polideportivo hasta el día 27 de este mes.

### ESLEIPEN PROZESUAK ZABALIK

Udalak hiru esleipen prozesu zabalik ditu. Kale garbiketari dagokionak urteko 440.000 euroko prezioa du eta kontratua lau urterako izango da eta beste bi urtetara luzagarria. Eraikin publikoen garbiketa ere esleipen prozesuan dago. Kasu honetan, urteko prezioa 255.000 eurokoa da eta bi urteko iraupena izango du hitzarmenak eta beste bi urtetara luzatzeko aukera. Azken kasu honetan, esleipen prozesua urteko 70.000 eurokoa da eta esleipena bi urterako (beste birako luzagarria) egingo da.

### PROCESOS DE LICITACIÓN ABIERTOS

El Ayuntamiento ha abierto tres procesos de licitación. El de la limpieza de calles con un precio anual de 440.000 euros y con una duración de cuatro años y dos prorrogables; el de la limpieza de edificios públicos con una valoración de 255.000 euros por año y una duración de dos años y otros dos prorrogables y el referente al mantenimiento del alumbrado público. El precio de licitación del mantenimiento del alumbrado es de 70.000 euros por año y también se adjudicará para dos años y otros dos prorrogables.

## Jarduera ekonomikoa sustatzeko Ekintza Plana



# AITZIBER BELDARRAIN

*Proiektuaren arduraduna / Responsable del proyecto - Ikei*

## "Etxeetan 250 inkestatik gora egin ditugu eskaria ezagutzeko eta orain sektore ezberdinekin harremanetan jarriko gara egoera eta balorazioak aztertzeko"

*Udala herriko jarduera ekonomikoari babesa emateko ekintza plana garatzen ari da 2016-2019 denboraldirako. Lan honekin merkataritza, ostalaritza, zerbitzuak, edota lanbide liberalak sustatzeko neurriak definitzea da asmoa. Udalak, legegintzaldian zehar 500.000 euro bideratuko ditu ekintza horiek finantzatzeko. Ikei enpresa ari da plana lantzen.*

*El Ayuntamiento está elaborando un plan de acción de apoyo a la actividad económica para el periodo 2016-2019. Con este trabajo se pretenden definir medidas para incentivar el comercio, la hostelería y otros servicios, así como las profesiones liberales. El Ayuntamiento destinará 500.000 euros durante esta legislatura para dotar de financiación las acciones que se planteen. La empresa Ikei es la encargada de elaborar el citado plan.*

**Ikeiko aholkularia den Aitziber Beldarrainek Merkataritza eta Zerbitzuen Dinamizazio Planaren fase ezberdinak azaldu dizkigu. Plan hau Jarduera Ekonomikoa Dinamizatzeko Ekintza Planaren testuinguruaren baitan ari da lantzen. Lanak hiru fase ditu. Lehenengotik, diagnosia egitetik hasi, eta ekintza ildo nagusiak kontrastatu eta proposatu arte.**

**Nola doa lana?**
Irailean hasi ginen eta urtea amaitu aurretik bukatuta izatea espero dugu. Diagnostikoa lantzen ari gara Lazkaoko egitura ekonomikoa aztertu ahal izateko. Ekonomilariak garen heinean, egoera sektoreka aztertu dezakegu eta ezagutu, esaterako, merkataritzak, ostalaritzak edota zerbitzuek duten garrantzia Lazkaoko enpresa sarean. Bestalde, 250 inkestatik gora egin ditugu herritarren eskaria aztertzeko, erosketa ohiturak, Lazkaoko eskaintzaz egiten duten balorazioa, e.a.

**Lanbide liberalak kontutan hartu dituzue?**
Bai, lana lanbide liberalei eta gremioei ere bideratuta dago ikusteko zer nolako ezagupen maila dagoen eskaintzari buruz edo zerbitzu hauetaz egiten erabilera, adibidez.

**Ondorio argirik badago?**
Modu honetako inkestek beti eragiten dute interesa eta ondorioak atera daitezke, baina oraindik informazioa prozesatzen ari gara. Behin Lazkaon bertakoei inkestak eginda, enpresekin harremanetan jartzen ari gara informazioa erraztu diezaguten. Horrela egoera eta balorazioak ezagutuko ditugu. Eta azken fasean, bilerak deituko ditugu diagnostikoaren ondorioak aurkezteko eta ekintza ildo nagusiak egiaztatzeko.

**Aitziber Beldarrain, consultora de Ikei, nos habla de las fases del Plan de dinamización del Sector Comercial y de Servicios de Lazkao que se está elaborando en el contexto del mencionado Plan de Acción para Dinamizar la Actividad Económica. El trabajo consta de distintas fases, comenzando por una fase de diagnóstico hasta llegar a la última fase de contraste y propuesta de líneas de actuación.**

**¿Cómo va el trabajo?**
Comenzamos en septiembre y esperamos poder finalizar antes de que termine el año. Estamos elaborando un diagnóstico para analizar la estructura económica de Lazkao. Como economistas, podemos analizar la situación por sectores y conocer por ejemplo la relevancia del comercio, la hostelería y otros servicios en el tejido empresarial de Lazkao. Por otro lado, hemos realizado más de 250 encuestas a hogares, con el fin de analizar la demanda de los ciudadanos, sus hábitos de compra, la valoración que hacen de la oferta de Lazkao, etc.

**¿Se han tenido en cuenta las profesiones liberales?**
Sí, el trabajo se ha enfocado también a profesiones liberales y a gremios para ver qué grado de conocimiento hay con respecto a la oferta existente o el uso que se hace de este tipo de servicios, por ejemplo.

**¿Hay una conclusión clara?**
Los resultados de este tipo de encuestas siempre tienen interés y permiten extraer conclusiones, pero aún estamos procesando la información. Una vez realizadas las encuestas a los residentes en Lazkao, estamos contactando con las empresas para que nos faciliten información que nos permitirá conocer su situación y valoraciones. Y en una última fase convocaremos reuniones para presentar las conclusiones del diagnóstico realizado y contrastar las principales líneas de actuación.

*Plan de Acción para dinamizar la actividad económica*

# NAGORE COLORADO

*Lazka On Merkatarien Elkarteko lehendakaria*
*Presidenta de la Asociación de Comerciantes Lazka On*



## "Jendeak herrian bertan erosteko geroz eta ohitura handiagoa du"

**Bi urte daramatza Lazka On elkarteko lehendakari gisa Nagore Coloradok. Dendarien artean indarrak batzearen beharra ikusten du.**

**Sasoiko al dago merkataritza Lazkaon zure ustez?**
Herri mailan eta kopuruari begiratzen badiogu, bai. Elkarteari dagokionez gutxi gara, zazpi momentu honetan. Zergatik ez dugu elkarrekin lana egingo gauzak antolatzeko? galdetzen dut nik baina askok beste ikuspegi bat dute. Sektore guztientzat ez du beharbada balioko merkatari elkarte batek baina... batasun hori lortzea da gure kezka nagusia. Indarrak batu beharko genituzke.

**Uste duzu Udala jarduera ekonomikoa dinamizatzeko egiten ari den plana lagungarria izango zaizuela?**
Hala bada, ez gara kexatuko. Beti esan izan dugu horrelako zerbait falta dela eta ea zer ondorioztatzen den, kuriositatea badut behintzat.

**Bezeroek eskertzen dituzte elkartetik antolaturiko ekimenak?**
Oparitzen den guztia bezeroek gustura hartzen dute. Urrian eta azaroan 150 euroko baleak ari gara zozketatzen adibidez. Jendeak bertan erosten badu, zergatik ez diezu horrelako aukera bat emango ezta?

**Zerbait aldatzearen beharra ikusten duzu merkataritza indartzeko, adibidez, trafikoa, kultur agenda indartu jendea erakartzeko...?**
Babes bat beti ondo dago. Gabonetan, adibidez, kale animazioa garrantzitsua da dendentzat. Kaleak apainduta baldin badaude, beste xarma bat hartzen dute eta horrek ere jendea erakarri egiten du. Oro har, jendeak nahi duena da denetariko eskaintza izatea. Adibidez, haur erropa denda bat itxi da baina jostailu denda bat zabaldu da. Geroz eta eskaintza zabalagoa, are eta gehiago erosiko da herrian eta hori da bultzatu beharrekoa.

**Zure iritziz jendeak gero eta gutxiago edo gehiago erosten du herrian?**
Geroz eta gehiago. Jendeak geroz eta ohitura handiago du herrian erosteko, hori ikusten da.

**Nagore Colorado lleva dos años como presidenta de la Asociación Lazka On. En su opinión, hace falta una mayor unión entre los comerciantes.**

**¿Goza de buena salud el comercio en Lazkao?**
A nivel de municipio hay mucho comercio, sí. En cuanto a la Asociación somos pocos, siete en este momento. Yo me pregunto, ¿por qué no trabajar todos juntos para sacar adelante las cosas? Pero hay quien lo ve desde otro punto de vista. Entiendo que no sea para todos los sectores pero... nuestra mayor preocupación es lograr esa unidad. Tenemos que sumar sinergias.

**¿Crees que el plan para la dinamización de la actividad económica que está elaborando el Ayuntamiento os servirá de ayuda?**
Si es así, no nos vamos a quejar. Siempre hemos dicho que algo así, hacía falta. Vamos a ver qué conclusiones se extraen. Tengo curiosidad por verlo.

**¿Cómo valoran los clientes las iniciativas organizadas desde la Asociación?**
Los clientes agradecen todo lo que se les regale. En octubre y noviembre estamos distribuyendo bales de 150 euros para sorteo. Si la gente compra en el pueblo, ¿por qué no le vas a dar una opción de este tipo?

**¿Hay alguna necesidad para impulsar el comercio como cambios en el tráfico, más actividades culturales para atraer a la gente...?**
Un apoyo siempre está bien. De cara a Navidades, por ejemplo, la decoración de las calles ayuda, tienen otro encanto. En general, la gente lo que quiere es una oferta variada, que haya de todo. Por ejemplo, se ha cerrado una tienda de ropa de niños pero se ha abierto una juguetería. Cuanta mayor y más variada sea la oferta, más comprará la gente en el pueblo y eso es lo que buscamos.

**¿La gente compra cada vez más o menos en el pueblo?**
Cada vez más. La gente cada vez tiene mayor costumbre de comprar aquí, eso se ve.

"

*Cada vez más la gente se está acostumbrando a comprar en el pueblo*

Nagore Colorado

"

*Hemos realizado más de 250 encuestas a hogares para conocer la demanda y ahora estamos contactando con los diferentes sectores para conocer su situación y sus valoraciones*

Aitziber Beldarrain

# Etxeak eta garajeak salgai Iturrialdean

## En venta viviendas y garajes en Iturrialdea



**1, 2 eta 3**
logelako etxebizitzak

Viviendas de
**1, 2 y 3** habitaciones

desde
**103.991,41 €**
-tik hasita ( + BEZ / + IVA)

**Garaje itxiak salgai**
31m²-arteko azalera

**Venta garajes cerrados**
Superficie de hasta 31m²

desde
**13.000 €**
-tik hasita ( + BEZ / + IVA)





(*) *Lau etxebizitza eta sei garaje itxi daude salmentan Iturrialdean.*
*Están en venta cuatro viviendas y seis garajes cerrados.*

**Lursailak enkantean Larreategin, etxebizitzak eraikitzeko**
Udalak enkantean jarri ditu Larreategiko bi lursail. Partzelek eraikitzeko lizentzia dute, alegia, bertan etxebizitzak eraikitzeko aukera dago. Interesa duena Udaletxeko hirigintza sailarekin jarri daiteke harremanetan.

**Subasta de parcelas en Larreategi con licencia para edificar**
El Ayuntamiento ha sacado a subasta dos parcelas en Larreategi con licencia para edificar. Los interesados pueden ponerse en contacto con el departamento de urbanismo del Ayuntamiento.

